



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko martxoaren 27a

28. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, eremu horretako udalekin batera, Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeari buruzko proposamen zehatzekin. Osoko Bilkurak onetsia ([2. or.](#)).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina ([3. or.](#)).

—Burlatako Udalarari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina ([11. or.](#)).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, eremu horretako udalekin batera, Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeari buruzko proposamen zehatzekin.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2008ko martxoaren 13an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, eremu horretako udalekin batera, Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeari buruzko proposamen zehatzekin. Horren jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako mozio bat, 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2008ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan, eremu horretako udalekin batera, Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeari buruzko proposamen zehatzekin**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean lan-talde bat proposa dezan, 1998ko maiatzaren 27an Aragoiko Autonomia Erkidegoarekin, Ebroko Ur Konfederazioarekin eta Centro de Estudios y Experimentación de Obras Públicas izenekoarekin sinatutako protokoloa egokitu eta gaurkotze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, arestian adierazitakoa burutzea helburu, azterlan bat egin dezan, eremu horretako udalekin batera, Tuterako “El Bocal Real” gunea leheneratzeko proposamen zehatzekin, halako moduz non, denen artean, Nafarroako Gobernuarekin batera, ekarpenak egin ahalko zaizkion egokitu beharreko protokoloari. Nafarroako Gobernuak, berriz, bai Parlamentuari bai sortzen den lan-taldeari igorriko dizkie Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarrak egin bide duen plan zuzendariaren zirriborroa.

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.)
- II. Sodena S.A. sozietate publikoari buruzko datu orokorrak (3. or.)
- III. Txostenaren helburuak eta norainokoa (4. or.)
- IV. Iberdrola S.A. konpainiaren akzioen erosketarekin zerikusia duten gertaera eta eragiketaren garrantzitsuenen kronologia (5. or.)
- V. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (6. or.).
  - V.1 Iberdrolaren kapital sozialaren %1 ordezkatzeko duten akzioen erosketa (6. or.)
  - V.2 Iberdrolaren akzioak erosteko eragiketaren finantzaketa. (7. or.)
  - V.3 Akzioen kotizazio arriskua estaltzea (8. or.)
  - V.4. Eragiketaren kostua eta akzioen gaur egungo balioa (9. or.)
  - V.5. Ondoko gertakariak (9. or.)
  - V.6. Gomendioak (10. or.)

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak (10. or.)

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (10. or.)

**I. SARRERA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskaturik, Nafarroako Comptos Ganberari eskatu zion fiskalizazio txosten bat egin zezan Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari buruz.

Lan hau Comptos Ganberak 2007rako onetsi zuen jarduera programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek egin zuen, betiere Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskertu nahi dugu Sodenako langileek lan hau egitean emaniko laguntza.

**II. SODENA S.A. SOZIEKATE PUBLIKOARI BURUZKO DATU OROKORRAK**

Sodena S.A., Sociedad de Desarrollo de Navarra, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren enpresa publiko bat da, eta 1984an sortu zen, urtarrilaren 2ko 1/1984 Foru Legearen bidez. Sozietatearen funtzionamendua arautzen duten estatutuak maiatzaren 16ko 68/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Sozietatearen kapital soziala 18.223.522 eurokoa zen 2005eko abenduaren 31n eta 2006ko abenduaren 31n, eta ondoko entitateek osatzen dute:

- Nafarroako Gobernua: ehuneko 65,42.
- Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Navarra SA: ehuneko 20.
- Navarra de Financiación y Control SA enpresa publikoa, zeinaren akziodun bakarra Nafarroako Gobernua baita: ehuneko 14,58.

Sodenaren helburu soziala da, besteak beste, Nafarroan inbertsioak sustatzea, eta, horretarako, sozietate berrien edo jadanik badirenen kapitalean parte har dezake. Partaidetza horren mugak ezarrita daude bai sozietatea sortzeko legean bai haren estatutuetan, eta ondokoak dira:

a) Sodenak parte hartu ahal izanen du sustatzen dituen sozietateen kapitalean, edota dagoeneko badiren sozietateen kapitalaren gehikuntzan, orobat bat egiten edo berregituratzen diren sozietateenean.

b) Parte-hartzearen ehunekoa izanen da enpresa partaidetuaren kapitalaren ehuneko 5ekoa, gutxienez, eta ehuneko 45ekoa, gehienez.

c) Partaidetza 10 urtekoa izanen da gehienez.

d) Parte hartzea inoiz ez da Sodenaren baliabide berekien ehuneko 15 baino handiagoa izanen.

Muga edo baldintza guzti horiek alda daitezke, salbuespenezko kasuetan, Nafarroako Gobernuaren beren beregiko onespenerekin.

### III. TXOSTENAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburua da Iberdrolaren akzioak erosteko eragiketa aztertzea eta lan hau eskatu duen Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen galderei erantzutea. Halaber, azaldu nahi dira eragiketaren kostua eta horren ondorioz izandako mozkinak, bai eta eragiketaren finantzaketak eta bermatzeak eragindako gastuak ere.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko galderak egin ditu:

1. Ba al da eragiketaren formalizazioari buruzko kontratu edo agiririk?

2. Nori erosi zitzaizkion akzioak?

3. Egiatzatu al ziren saltzailearen zilegitasuna eta ahalmenak?

4. Nork erosi zituen akzioak Sodenaren izenean?

5. Ba al zuen nahiko ahalmenik horretarako?

6. Sodenako administrazio kontseiluak ba al zuen ahalmenik akzioak erostea erabakitzeko 2005eko martxoaren 3an, Nafarroako Gobernuak erabakirik hartu gabe, ez sozietatearen estatutuetako 4. artikuluan, sorrerako foru legearen 6. artikularekin lotuta, ezarritako mugak gainditzeko, ez tituluak erosteko, Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legearen 11. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera?

7. Sodena sortzeari buruzko Foru Legearen 6. artikuluko 3. idatz-zatia urratu al da? Izan ere, aipatu artikulua hala dio: "Sodenak parte hartu ahal izanen du sustatzen dituen sozietateen kapitalean, edota dagoeneko badiren sozietateen kapitalaren gehikuntzan, orobat bat egiten edo berregituratzen diren sozietateenean..."

8. Eragiketaren berri eman al zitzaion Balore Merkaturako Komisio Nazionalari?

9. Finantzaketa eskaintza desberdinak eskatu al ziren?

10. Aseguramendu eskaintza desberdinak eskatu al ziren?

11. Akzioen erosketa finantzatuta dago neurri batean akzioen bermearekin. Hori dela eta, zer gertatuko da Sodenak ez badu epe barruan ordaintzen?

12. Sodenako zuzendari nagusiak ba al zuen kontseiluaren baimenik edota ahalmen nahikorik Nafarroako Kutzari 5.011.712 akzioen gaineko erosketa aukera (call) saltzeko? Beharrezkoa al zen Nafarroako Gobernuaren baimena, Nafarroako ondareari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera?

13. Sodenako kudeatzaileak ba al zuen kontseiluaren baimenik edota ahalmen nahikorik zazpi milioi akzio pignoratzeko kredituaren berme gisa?

14. Bahituraren eskubide erreala inskribatu al da? Noren esku daude gaur egun zazpi milioi akzio horiek?

Norainokoari dagokionez, fiskalizazioa egitera-koan aintzat hartu dira eskuarki onartutako kontu-ikuskatzailetza arauak eta beharrezkotzat jo diren probak eta prozedurak gauzatu dira fiskalizazio lanaren helburua lortzeko.

Comptos Ganberak Ekonomia eta Ogasun kontseilariari eskatu zion akzioak erosteko eragiketari buruzko dokumentazioa, baita eragiketa horretan Gobernuak izandako jokaerari buruzkoa ere. Horren xedea zen ezagutzea administrazioak izan duen partaidetza eta inplikazioa Iberdrolaren akzioen erosketan.

Gobernuak ondoko dokumentazioa igorri digu:

- Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 2005eko otsailaren 8an Sodena S.A. sozietatearen administrazio kontseiluko lehendakariari igorritako gutuna, Iberdrolaren kapital sozialaren ehuneko bata erosteko premiatzen zuena.

- Nafarroako Gobernuaren 2005eko martxoaren 14ko erabakia. Haren bidez, eragiketa estrategikotzat hartzen da Iberdrolaren kapital sozialean

denbora mugarik gabe parte hartzea, eta horretarako baimena ematen da.

Gobernuak akzioak erosteko eragiketari izandako jarduerari buruzko informazioari dagokionez, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak adierazi digu ez dagoela jasota bestelako dokumentaziorik eta Gobernuak ez duela beste ekintzarik egin, ez bada Sodena S.A. sozietatearen bitartez parte hartzea Iberdrola S.A. konpainiaren akzioen erosketaren finantzaketan eta arriskuaren estalduran.

#### **IV. IBERDROLA S.A. KONPAINIAREN AKZIOEN EROSKETAREKIN ZERIKUSIA DUTEN GERTAERA ETA ERAGIKETA GARRANTZITSUENEN KRONOLOGIA**

Sodena enpresa publikoak Iberdrolaren kapital sozialean parte hartzeko eragiketari dagokionez, hauek dira ezagutu ditugun gertaera esanguratsuenak, hurrenkera kronologikoaren arabera:

2005eko otsailaren 8an, Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasun kontseilariak gutun bat igorri zion Sodenako administrazio kontseiluko lehendakariari –aldi berean Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria–. Hona hemen gutunaren edukia: “Foru Komunitatean baliatzen diren energiaren alorreko soluzioen esparruan, Nafarroako Gobernuak behin eta berriro agertu du oro har esanguratsuen den eragilean duen parte hartzea instituzionalizatzeko asmoa. Orain arte, Nafarroako Gobernuak parte hartu du, bereziki enpresa publikoen bitartez, estrategikoki edo industriaren arloan errendimendu handikoak izan zitezkeen enpresen edo soluzioen sorreran. Gaur egun, beharrezkoa dirudi esku-hartze horren izaera aldatzeak, balizko etekin ekonomikoak edo sektorialak ez ezik, merkatuaren egonkortasuna, gaur egungo eta etorkizuneko eskuragarritasunaren bermea eta zerbitzuaren funtsezko kalitatea ere bilatuz.

Jarraibide horiek betetzeko, zenbait elkarrizketa izan ditut gure planteamenduari hobekien egokitzeko zailtasunak zehazte aldera, eta Iberdrola da aukera baliagarriena. Bere jarduerak gure foru erkidegoko BPGan duen eragin ekonomikoak –%2,5eko ekarpen zuzena egiten dio, eta beste %0,87 Gamesa Eólica, S.A. enpresaren bidez–, 600 milioi eurotan balora daitekeenak; Nafarroan duen egonkortasunak, 160 langile baino gehiagorekin; Nafarroan instalatuta duen potentziak –473 megawatio–, foru erkidego osoan zerbitzu-emaile gisa duen ezarpenak, edota arlo fiskalean duen egoera kualifikatuak, hirugarren zergaduna baita eta azken urteotan izan duen eragin fiskala 312 milioi euro baino gehiagokoa izan baita, egiazta-

zaten dute Iberdrola S.A. dela aukeratutako inbertsioa, Nafarroako Gobernuak jarrera estrategikoa har dezan energiaren merkatuan. Bestalde, aipatu enpresa ezaguna dugu lehendik ere Nafarroako interesentzat emankorrak izan diren eragiketak direla eta.

Jakin badakit ados zaudela, hasiera batean behintzat, Nafarroako Gobernuaren esku-hartzea modu esanguratsuan handitzeko, eta hori egiteko eros liteke Iberdrolaren kapital sozialaren ehuneko 1, zeinak 175 milioi euroko balio zenbatetsia baitu. Eragiketa finantzatzeko modua izan liteke Sodenak bereak dituen funtsen ekarpen txiki bat erabiltzea –50 milioi euro inguru–, beste jarduera ildo batzuk ez konprometitze aldera, eta gainerakoagatik zorpetzea.

Hori dela eta, eta Nafarroako ondareari buruzko araudi indarduneari aurreikusitako ondorioekin, premiatzen zaitut eragiketa hori deskribatu bezala gauzatzeko beharrezkoak diren urratsak egin ditzazun, eta azter dezazun eragiketa horrek foru erkidegoarentzat duen egokitasuna, Nafarroako Gobernuari interesatzen zaizkion baldintzetan, eraginkorrak diren beste parametro batzuk sartzea eragotzi gabe.”

2005eko otsailaren 10ean, Sodenak Iberdrolaren kapital sozialaren ehuneko bata erosi zuen, 9.045.492 milioi akzio, 173.556.238 milioi euroren truke. Zenbateko hori osorik ordaindu zen 2005eko otsailaren 16an, diru berekiarekin.

2005eko martxoaren 3an, Sodenaren administrazio kontseiluak aho batez berretsi zuen akzioen erosketa eta Sodenako zuzendari nagusiari ahalmena eman zion konpainiaren izenean eta ahalmen guztiekin negoziatzea eta itxi zitzan beharrezkoak ziren hitzarmenak, erosketa finantzatu eta ezarritzeko.

2005eko martxoaren 14an, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen Iberdrolaren kapital sozialean denbora mugarik gabe parte hartzeko, ehuneko bata erosita, eta eragiketa estrategikotzat hartu zuen. Halaber, eraginik gabe utzi zituen Sodenako estatutuetan enpresen kapital sozialean parte hartzeari buruz ezarritako mugak.

2005eko martxoaren 21ean, Sodenako administrazio kontseiluko lehendakariak gutun bat igorri zion Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariari. Hona hemen gutunaren edukia:

“Otsailaren 8an zuk igorritako gutunean Sodenari premiatzen zen Iberdrolaren kapital sozialaren ehuneko baterainoko akzioak erosi zitzan, Nafarroako ondareari buruzko araudi indarduneari aurrei-

kusitako ondorioekin. Horri dagokionez, jakinarazten dizut akzioak erosteko eragiketa iragan otsailaren 10ean gauzatu zela eta Sodenako administrazio kontseiluak berretsi zuela iragan martxoaren 3an eginiko bilkuran.

Bilkura hartan, sozietateko administratzaileek aintzat hartu zuten aipatu eragiketak Nafarroako Gobernuarentzat duen interes estrategikoa. Halaaber, parte-hartzearen iraunkortasunaz eta horren gainean nolabaiteko estaldura ezartzeko aukeraz ere hitz egin zen.

Horren ondorioz, eta kontuan hartuta eragiketa estrategikoa dela, egokia iruditzen zait Nafarroako Gobernuari proposatzea erositako partaidetzaren iraunkortasuna islatuko duen erabaki bat har dezala.

2005eko maiatzaren 12an, Sodenaren administrazio kontseiluak erabaki zuen 120 milioi eurorainoko kreditua baimentzea eta hura sinatzea Nafarroako Kutxarekin eta beste finantza entitate batzuekin, baita erositako akzioen salmenta erosketa-balioa Nafarroako Kutxarekin aseguratzea ere. Halaber, ahalmena eman zion Sodenako zuzendari nagusiari sozietate publiko horren ize-nean hartutako erabakiak exekutatzeko eta beharrezkoa zen eskritura publikoa egiteko.

2005eko maiatzaren 26an, sindikatutako kredituaren kontratu bat sinatu zuten Sodenako zuzendari nagusiaren –sozietate publikoaren izenean– eta Nafarroako Kutxaren eta beste sei finantza-entitatearen artean. Kreditua 120 milioi eurokoa zen eta bahitura ezarri zen zazpi milioi akzioen gainean. Halaber, Nafarroako Kutxarekin kontratatatu zen akzioen balioaren adinako estaldura eragiketa bat.

2005eko ekainaren 15ean, estaldura eragiketa berretsi zen, 2005eko ekainaren 15ean sinatutako finantza eragiketen kontratu markoaren ondorioetarako.

## **V. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eragiketari eta eragiketa horren finantzaketari eta arriskuaren estaldurari buruzko ondorioen oinarria da aipatu enpresa publikoak emandako agirien azterlanetik ateratako ebidentzia.

### **V.1. IBERDROLAREN KAPITAL SOZIALAREN %1 ORDEZKATZEN DUTEN AKZIOEN EROSKETA**

Iberdrola S.A. konpainiaren kapital sozialean ehuneko 1erainoko partaidetza eskuratzea Nafarroako Gobernuaren erabakia izan zen, Foru

Komunitaterako “interes estrategikoa” duten arrazoietan oinarritua. Sodenak eragiketa hori exekutatu zuen Gobernuak eskatuta, eta Gobernuak agindu eta alde zuzenetik negoziatu bezala.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko galderei erantzuteko –1.etik 8.era, biak barne–, Comptos Ganberak ondorioztatu du Iberdrolaren kapital sozialaren %1 erosteko eragiketa, 173,55 milioi euroko kostuarekin, eragiketa balioduna eta eraginkorra dela formalizatu zen unetik beretik. Hala ere, ondoko oharrak egin behar ditugu:

Iberdrolaren akzioak erostea eragiketa atipikoa eta ez-ohikoa da Sodenaren inbertsio-politikaren barruan; izan ere, politika hori bideratuta dago funtsean arrisku-kapitaleko eragiketak egitera, enpresen kapitaleko aldi baterako parte-hartzeen bidez. Sodenako inbertsioen batzordeak eta administrazio kontseiluak alde zuzenetik adostu eta onetsi behar zuten eragiketa hori.

Sozietate publikoaren estatutuen eta bere sorrerako legearen arabera, Sodenako administrazio kontseiluak erabaki aurretik eman behar zuen eragiketa hori egiteko baimena Nafarroako Gobernuak; izan ere, Iberdrolaren kapital sozialaren partaidetza %5ekoa baino txikiagoa da, Sodenaren berariazko baliabideen %15 baino handiagoa da, eta ez dago jasota Iberdrolaren kapitala zabaltzeko eragiketa zenik edota enpresa hori bategite edo berregituraketa prozesu batean murgilduta zegoenik.

Administrazio kontseiluaren iritziz, “2005eko otsailaren 8an Nafarroako Gobernuak Ogasun kontseilariak igorritako gutunaren edukien arabera, eta Nafarroako ondareari buruzko araudi indarduna kontuan hartuta, betetzat jotzen dira eragiketa hori gauzatzeko lege eskatzen diren baldintza guztiak”.

Horrenbestez, akzioak erosteko eragiketa gauzatu zen Nafarroako Gobernuak lehendakariorde eta Ogasun kontseilariak Sodenako administrazio kontseiluko lehendakari eta Industria, Teknologia, Merkataritza eta Enplegu kontseilariari emandako jarraibideen arabera. Sodenako zuzendari nagusia izan zen, aldiz, eragiketa izapidetu eta gauzatzearan arduraduna.

Sodenak 2005eko otsailaren 10ean erosi zituen akzioak bere zuzendari nagusiaren bitartez, zeinek eragiketa Iberdrolari berretsi baitzion aurreko eguneko saioa amaitzean Iberdrolako akzioek zuten prezioan, hau da, 19,25 eurotan. Berrespen horrekin batera, Sodenako zuzendari nagusiak erosketaren berri eman zion Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Ogasun eta

tseilariari, baita Sodenako administrazio kontseiluko lehendakari eta Industria, Teknologia, Merkataritza eta Enplegu kontseilariari ere. Hurrengo egunean, 2005eko otsailaren 11n, eragiketaren berri eman zitzaion aipatu administrazio kontseiluko gainerako kideei.

Gure ustez, Sodenako zuzendari nagusiak akzioen erosketa, enpresa publikoaren izenean, Iberdrolari berresteko unean, ez zuen ahalmen nahikorik eragiketa hori egiteko, eta administrazio kontseiluak ez zion horretarako ahalmen berriazkorik eman.

Erosketa eragiketa hori aho batez berretsi zuen Sodenako administrazio kontseiluak, 2005eko martxoaren 3an, eta berretsi ondoren, Nafarroako Gobernuak baimena eman zuen, hain zuzen, 2005eko martxoaren 14an. Indarrean dagoen araudiari jarraikiz, berrespenak eta baimenak eragiketa balioztatzen dute; beraz, aipatu eragiketa eraginkorra da, formalizatu zen unetik beretik.

Ez dago jasota Sodenak inolako jarduerarik egin zuenik edota Iberdrolarekin alde aurretiko harremanak izan zituenik merkataritza konpainia horren 9 milioi akzioko pakete bat eskuratze aldera, ezta akzio horiek erosteko prezioa zehazte aldera ere.

Sodenak eragiketaren zenbateko osoa ordaindu zuen, 173.556.238 euro, 2005eko otsailaren 16an, berariazko baliabideekin.

Akzioak erosteko eragiketa Nafarroako Kutxaren bitartez gauzatu zen. Nafarroako Kutxak, berriz, Ahorro Corporación baloreen sozietatearen bidez egin zuen eragiketa.

Sodenak azaldu digun moduan, ez du daturik akzioen jatorriari buruz; izan ere, hori merkatuaren eta bitartekari finantzarioen berariazko jarduerari dagokio.

Ez da ageri Sodenak inolako jarduerarik egin duenik akzioen saltzailearen zilegitasuna eta ahalmenak egiaztatze aldera.

Akzioak kontuko idazpenen bidez adierazitakoak dira. Kontuko idazpenen bidez adierazitako baloreak kasuan kasuko kontabilitate-erregistroan inskribatzearen bidez eratzen dira.

Sodena da akzio guztien titularra. Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioaren egiaztagiria dago jasota eta bertan adierazten da entitate horren liburu eta erregistroen arabera Iberdrolaren 9.015.492 akzio daudela erregistratuta Sodenaren alde.

Ez dago jasota eragiketaren berri eman zitzaionik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

Baloreen jaulkitzaileak –kasu honetan, Iberdrola– beharturik daude garrantzia duen informazio guztia igortzera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari. Informazio garrantzitsutzat jotzen da ezagutzuz gero arrazoizko eragina izan dezakeena inbertsore batengan, baloreak erosi edo saltzeko, eta, ondorioz, eragin nabarmena izan dezakeena balore horiek bigarren mailako merkatu batean duten kotizazioan.

## V.2 IBERDROLAREN AKZIOAK EROSTEKO ERAGIKETAREN FINANTZAKETA.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko 9., 11., 13. eta 14. galderei erantzunez, Ganbera honek dio:

Sodenak sindikatutako kredituaren proposamen bat jaso zuen, nahiz eta ez den agertzen halakorik eskatu zuenik. Proposamena Nafarroako Kutxaren batzorde exekutiboak adostu eta onetsi zuen 2005eko martxoaren 2an.

Sodenak sindikatutako kredituaren proposamen hori aztertu zuen, proposatu zuen beste finantza-entitate batzuek ere parte har zezaten, eta Nafarroako Kutxak eskaintako kredituaren baldintzak negoziatu eta hobetu zituen.

Ez zen eskaintza-lehiarik izan finantza-entitate desberdinen artean, baina, hala ere, Iberdrolaren akzioen erosketa finantzatzeko proposamenak aurkeztu zituzten.

Azkenik, Sodenak hitzartu zuen, Nafarroako Kutxak hasieran eginiko eskaintza oinarri hartuta, sindikatutako kreditu bat, Nafarroako Kutxarekin eta beste sei finantza entitatearekin (Bilbao Bizkaia Kutxa, Caja de Ahorros de Asturias, Caja de Ahorros de Galicia, Caixa de Ahorros de Vigo, Ourense e Pontevedra, Caja de Ahorros de Salamanca y Soria eta Caja General de Ahorros de Canarias). Hona hemen hitzartutako kredituaren ezaugarriak: Kredituaren muga 120 milioi eurokoa zen, epemuga, urtebetekoa, eta beste lau urtez berritu zitekeen. Interes tipoa euriborra gehi %0,375ekoa zen, eta bahituraren eskubide erreala ezarri zen Iberdrolaren 7 milioi akzioen gainean.

Kredituaren xedea da Iberdrolaren akzioen erosketa partzialki finantzatzea, etorkizunean beste inbertsio batzuei ekitea eta Sodenaren inbertsioak finantzatzeko hitzartu ziren eragiketak, bankuko zorrak eragin dituztenak, amortizatzea.

Iberdrolaren 7 milioi akzioen gainean kredituaren betebeharrak betetzearen berme gisa eratutako bahitura eskubide erreala kontu adierazgarri batean inskribaturik dago, pignoraturiko zazpi milioi akzioak ibilgetzeari buruzko egiaztagiriaren ara-

bera. Ziurtagiri hori Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioak eman zuen, akzioen kontabilitate-erregistroaren ardura baitu.

Eratutako bahituraren berri eman zitzaion Madrilgo Baloreen Burtsako Sozietate Zuzendariari, baita Baloreen Konpentsazio eta Likidazioko Zerbitzuari ere.

Baloreen Merkatuari buruzko Legean ezarri eta kredituaren kontratuan jasotzen den moduan, bahituraren inskripzioak pignoraturako akzioen eskualdatzearen balio bera du. Hori dela eta, akzioen titulartasuna Sodenak dauka, baina hartzekodun pignorazioak bahituraren emandako akzioen atxikitze-eskubidea dauka hitzartutako zorra benetan ordaindu arte.

Hitzartutako kredituaren ondorioz sorturiko betebeharrak ez badira betetzen, sindikatutako kreditua eman duten finantza entitateek bahitura exekutatu eta pignoraturako akzioak saldu ahal dituzte. Salmenta Madrilgo Baloreen Burtsako Sozietate Zuzendariak egin ahal du. Horretarako, aipatu finantza entitateek sindikatutako eta akzioen bahituradun kredituaren kontratuari dago-kion agiri publikoa aurkeztu beharko luke, bahituraren inskripzioa ziurtatzen duen ibilgetzeari buruzko egiaztagiriarekin batera, Sodenari ezer eskatzeko beharrik gabe.

### V.3 AKZIOEN KOTIZAZIO ARRISKUA ESTALTZEA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko 10. eta 12. galderei dagokienez, Comptos Ganberak adierazten du:

Sodenak zenbait finantza entitateen eskaintzak jaso zituen erosketa-eragiketa eta haren estaldura finantzatzeko. Eskaintza horiek aztertu ondoren, betiere oinarri gisa hartuta eragiketako lehena izan zen Nafarroako Kutxaren eskaintza, txosten bat egin zuen eragiketa finantzatzeko eta estaltzeko aukera guztiekin eta Nafarroako Kutxarekin negoziatu zituen hark eginiko aseguramendu proposamenaren baldintzak.

Eragiketa estaltzeko Nafarroako Kutxaren proposamena aukeratu izanaren arrazoia da berori dela Sodenaren beharrezanean hobeto erantzuten diona; izan ere, segurtasunaren irizpideari lehentasuna ematen zaio errentagarritasunaren eta kostuaren irizpidearen aldean.

Sodenako administrazio kontseiluak baimena eman zuen Iberdrolaren akzioen erosketa balioaren aseguramendua egiteko Nafarroako Kutxarekin. Halaber, sozietate publikoko zuzendari nagusiak, administrazio kontseiluaren baimen

espresarekin, berretsi egin zuen, Sodenak eta Nafarroako Kutxak 2005eko ekainaren 15ean sinatutako finantza eragiketen kontratu markoa oinarri gisa hartuta. Hona hemen baldintzak:

- Sodenak 9.015.492 salmenta opzio europar (put) erosi zizkion Nafarroako Kutxari, 19,25 eurotan –opzioaren kontratuan hitzarturiko prezioa– eta epemuga 2007ko maiatzaren 18an ezarri zen.

- Sodenak 5.011.712 erosketa opzio europar (call) saldu zizkion Nafarroako Kutxari, 20,67 eurotan –opzioaren kontratuan hitzarturiko prezioa– eta epemuga 2007ko maiatzaren 18an ezarri zen.

Ezarri zen put nahiz call opzioen likidazioa aktiboaren eskualdatze fisikoaren bidez edota diferentzien ondoriozko likidazioaren bidez egiten zela, Sodenak zehaztutakoaren arabera.

2007ko maiatzaren 18an, alegia, opzioen epemuga betetzean, Iberdrolaren akzioen kotizazioa 19,25 eurotik gorakoa zen eta, horrenbestez, Sodenak ez zuen baliatu saltzeko opzioa.

Aldiz, kotizazio-prezioa 20,67 eurotik gorakoa zenez, Nafarroako Kutxak bere erosteko opzioa baliatu zuen.

2007ko martxoaren 28an, Sodenako administrazio kontseiluak erabaki zuen akzioak ez saltzea eta call opzioak likidatzea, diferentziaren eskualdatzearen bidez.

Horrenbestez, Sodenak 90.956.308,16 euro ordaindu zizkion Nafarroako Kutxari likidazioagatik, sindikatutako kredituaren kargura. Zenbateko hori 5.011.712 akziori zegokion, 18,14875 euroko prezioan, eta da, hain zuzen, kontratuaren arabera (38,82) kalkulaturako batez besteko prezio osoaren eta opzioaren epemugako prezioaren (20,67) arteko aldea.

Gaur egun, Sodena Iberdrolaren 9.015.492 akzioen titularra da, eta horietatik 7.000.000k pignoraturata jarraitzen dute. Akzioen kostua, guztira, 264.512.546 eurokoa da; izan ere, akzioen erosketaren prezioari (173.556.238 euro) gehitu behar zaizkio akzioen arriskua estaltzeko eragiketa dela eta likidaturiko 90.956.308,16 euroak.

Sodenako administrazio kontseiluak, 2007ko martxoaren 28an eginiko bileran, erabaki zuen arriskua estaltzeko eragiketa ez luzatzea eta halako beste eragiketarik ez egitea, “merkatuaren eta Iberdrolari dagozkion baloreen egoeraren ondorioz”.

Administrazio kontseiluak akzioen erosketa finantzatzeko eta estaltzeko eragiketak baimendu zituen eta, halaber, ahalmena eman zion Sodena-



ko zuzendari nagusiari sozietatearen izenean exekuta zitzan.

Horrenbestez, zuzendari nagusiak ahalmen nahikoa zuen kredituaren berme gisa zazpi milioi akzio pignoratzeko eta Nafarroako Kutzari 5.011.712 akzioren gaineko erosketa opzioak saltzeko.

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eginiko 6. eta 12. galderei dagokierik, Comptos Ganberak adierazten du:

Beste sozietate batzuen kapital soziala ordezkatzan duten tituluen gainean Sodenak eginiko

eragiketari –hala nola eskuratzea, pignorazioa, erosteko opzioak eta saltzeko opzioak– aplikagarri zaien ondareari buruzko araubide juridikoa araubide juridiko pribatuan aurkituko dugu; izan ere, titulu horiek sozietate publikoaren ondarearen zati dira, eta ez Foru Komunitatearen ondarearena.

#### V.4. ERAGIKETAREN KOSTUA ETA AKZIOEN GAUR EGUNGO BALIOA

Hona hemen akzioak erosteko eragiketaren, haren finantzaketa eta estalduraren, eta eragiketaren ondoriozko gastu eta dirusarreraren balorazio ekonomikoa:

	Saldoa 2005/12/31n	Saldoa 2006/12/31n	Saldoa 2007ko abenduan
Finantza inbertsio iraunkorrak (9.015.492 akzio)	173.556.238	173.556.238	264.512.546

2005eko eta 2006ko ekitaldien amaieran, Iberdrolako akzioek merkatuan zuten prezioa haiek erosteagatik ordaindu zena baino altuagoa zen, 19,25 euro, hain zuzen. Hori dela eta, akzioen balorazioak erosketaren kostua izaten jarraitzen du (173.556.238 euro).

2007ko maiatzean, Nafarroako Kutzak 5.011.712 akzioren gaineko erosketa opzioa exeku-

tatu eta diferentzien ondoriozko likidazioa gauzatu zuenean –Sodenak 90.956.308 euro ordainduta–, Iberdrolaren akzioen kostua 264.512.546 eurokoa zen, alegia, 29,34 euroko prezioa zuten 9.015.492 akziori zegokiena.

Hona hemen akzioen erosketaren eta haren finantzaketa eta estalduraren ondorioz sortutako gastu eta dirusarrerak, ekitaldi bakoitzean:

	Saldoa 2005/12/31n	Saldoa 2006/12/31n	Saldoa 2007ko abenduan	Guztira
<b>Dirusarrerak:</b>	<b>3.985.594</b>	<b>7.979.612</b>	<b>9.583.468</b>	<b>21.548.674</b>
Dibidendu gordinak	3.985.594	7.979.612	9.403.158	
Batzar Nagusira joateagatik saria			180.310	
<b>Gastuak:</b>	<b>2.830.529</b>	<b>4.763.136</b>	<b>4.583.387</b>	<b>12.177.052</b>
Kredituaren korrituak eta komisioak	377.706	642.064	3.060.480	
Estalduraren prima garbia eta komisioak	2.452.823	4.121.072	1.522.907	

Kreditua 2008ko maiatzaren 26ra arte luzatu da.

Gaur egun ez dago Iberdrolaren akzioen kotizazioaren arriskua estaltzeko eragiketarik.

#### V.5. ONDOKO GERTAKARIAK

2007ko urriaren 8an, Iberdrolak akzioen bikoizketa (split) gauzatu zuen, ondoko proportzioan: gaur egungo titulu bakoitzagatik lau titulu berri. Konpainiako akziodunentzat kosturik gabekoa den eragiketa honen ondoren, Iberdrolaren akzioen balio nominala hiru eurokoa izatetik 0,75 eurokoa izatera igaro da.

Horrenbestez, Sodena igaro da hiru euroko balio nominala duten 9.015.492 akzio izatetik 0,75 euroko balio nominala duten 36.061.968 akzio izatera.

2007ko abenduaren 3an, Iberdrola S.A. konpainiaren akzioek 11,18 euroko kotizazioa zuten; hori dela eta, Sodenak dauzkan konpainiaren akzioen guztizko balioa 403.172.802,24 eurokoa da. Zerbateko horri kentzen badizkiogu eragiketaren gastuak, Sodenarentzako balio eragingarria 312.216.494,24 eurokoa da; aldiz, erosketaren kostua 173.556.238 eurokoa izan zen 2005eko otsailean. Aurrekoaren arabera, Sodena S.A. sozietateak dauzkan Iberdrolaren akzioen adierazi gabeko gainbalioa 138,66 milioi eurokoa da

2007ko abenduaren 3an. Egun horretara arte Sodenak jasotako dibidenduek eta batzordeetara joateagatiko primek 21.548.674 euro egiten dute<sup>(1)</sup>.

#### V.6. GOMENDIOAK

Iberdrolaren akzioak erosteko jarraitu den prozedura ikusirik –haren arabera Gobernuak eragiketaren gaineko erabakia hartu zuen eta enpresa publiko bati eskatu zion erabakia bete zezan eta adierazi zion erosketa nola finantzatu–, hona hemen Comptos Ganberaren gomendioak:

- *Helburu estrategikoak eta horien ondorioz hartzen diren erabakiak azterketa ekonomikoetan oinarritu eta plan batean jaso behar dira, haiek lortzeko jarduera-ildo eta beharrezkoak diren baliabideekin batera. Halaber, helburuak zehaztu eta epe laburreko helburu operatiboekin lotu behar dira.*

- *Administrazioak burtsan inbertsioak egiteko baldintzak eta mugak ezarri eta arautu behar dira, eta kontuan hartu beharko litzateke legebiltzarrari inbertsio horiei buruzko informazioa ematearen komenigarritasuna.*

- *Enpresa publikoak ezarrita dauden prozedurak bete behar ditu, baita berezkoa duen araudia ere, gauzatzen dituen eragiketak baimendu eta onesteko.*

Txosten hau auditore M<sup>a</sup>. Asunción Olaechea Estanga andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko abenduaren 31n

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

#### **NAFARROAKO GOBERNUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINIKO ALEGAZIOAK**

2007ko abenduaren 4an, Nafarroako Gobernuak jaso zuen Sodena S.A. sozietateak Iberdrolaren akzioen %1 erosteko eginiko eragiketari buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko txostena, eta alegazioak aurkezteko epearen barruan, honakoa adierazten du:

1. Txostenaren edukiarekin ados dagoela; izan ere, Nafarroako Gobernuaren ustez, bertan behar

bezala jasotzen dira Sodena S.A. sozietateak 2005eko otsailaren 5ean Iberdrolaren akzioen %1 erosteko gauzatutako eragiketaren prozedura, legezketasuna, norainokoa eta ondorioak.

2.- Eragiketa horrek interes publikorako izan duen emaitza ekonomikoari buruz behar bezalako argitasunez informatze aldera, Nafarroako Gobernuak uste du V.5 atalaren azken idatz-zatian ondokoa zehaztu beharko litzatekeela:

“2007ko abenduaren 3an, Iberdrola S.A. konpainiaren akzioek 11,18 euroko kotizazioa zuten; hori dela eta, Sodenak dauzkan konpainiaren akzioen guztizko balioa 403.172.802.24 eurokoa da. Zenbateko horri kentzen badizkiogu eragiketaren gastuak, Sodenarentzako balio eragingarria 312.216.494,24 eurokoa da; aldiz, erosketaren kostua 173.556.238 eurokoa izan zen 2005eko otsailean. Aurrekoaren arabera, Sodena S.A. sozietateak dauzkan Iberdrolaren akzioen adierazi gabeko gainbalioa 138,66 milioi eurokoa da 2007ko abenduaren 3an. Halaber, esan behar da egun horretara arte Sodenak jasotako dibidenduek eta batzordeetara joateagatiko primek 21.548.674,00 euro egiten dutela.”

Iruñean, 2007ko abenduaren 18an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

#### **NAFARROAKO GOBERNUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak aztertuta, Comptos Ganberak ondokoa erabaki du:

1. alegazioa txostenari erantsi zaio; izan ere, txostenaren azalpena dela uste dugu, txostenaren edukia aldatzen ez duena.

2. alegazioa onartu da eta txosteneko V.5 idatz-zatia aldatu da.

Horrenbestez, txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2007ko abenduaren 31n

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(1) Idatz-zati hau aldatu egin da, Nafarroako Gobernuak aurkeztuta alegazioaren ondorioz.

## Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko urtarrilaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Burlatako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Burlatako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2006ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (11. or.).
- II. Helburua (12. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (12. or.).
  - III.1. Norainokoa (12. or.).
  - III.2. Mugak (13. or.).
- IV. Iritzia (13. or.).
  - IV.1. Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra (13. or.).
  - IV.2. Legezketasuna (13. or.).
  - IV.3. 2006ko abenduaren 31ko finantza-egoera (13. or.).

IV.4. 2005eko txostenaren gomendioen jarraipena (13. or.).

- V. Azken ondorioa (13. or.).
- VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (14. or.).
  - VI.1. Administrazio-kontratazioa. (14. or.).
  - VI.2. Kudeaketari buruzko bestelako gomendioak (15. or.).
  - VI.3. Hirigintza (16. or.).
  - VI.4. Sociedad Urbanística Municipal de Burlada, S.L. (16. or.).

Eranskina. 2006ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean: [www.cfnavarra.es/camara.comptos](http://www.cfnavarra.es/camara.comptos)).

#### I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Comptos Ganberak Burlatako Udalaren eta haren erakunde autonomoen –Kirol Patronatua, Kultur Patronatua eta Musika Patronatua– 2006ko Kontu Orokorren fiskalizazioa egin du.

Burlatako Udalak 18.388 biztanle ditu eta, bere erakunde autonomoekin batera, hauexek ditu zifra adierazgarrienak 2006ko abenduaren 31n:

Entitatea	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak, 2006-12-31n
Udala	14.115.056,71	13.481.092,53	249
Kirol Patronatua	1.918.390,49	1.361.840,75	32
Kultura Patronatua	690.777,81	130.168,94	5
Musika Patronatua	717.142,49	515.305,79	28
<b>Guztira</b>	<b>17.441.367,50</b>	<b>15.488.408,01</b>	<b>314</b>

Oharra: Zebatekoak bateraturik daude, eta hortaz, ez datoz bat xehetasunen baturarekin.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraioak.

2005ean udalak udal hirigintza-sozietate bat sortu zuen.

Toki entitateari aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Nafarroako toki araubidea gaurkotzeari buruzko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legea.
- Toki araubidearen oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua.
- Kontratu publikoei buruzko foru araudia.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Estatuaren dirulaguntzei buruzkoa.
- Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako toki administratziarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.
- Udalaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, eginiko azterlanaren norainokoa eta mugak eta, laugarrenean, Kontu Orokorrari, legez-kotasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean gure lanetik atera daitezkeen azken ondorioak aurkezten ditugu eta, seigarren eta azkenekoan, berriz, erakundearen barne-antolaketa eta –kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta gomendioak biltzen dira, arloen arabera.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2006ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Burlatako Udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako hauei buruzko gure iritzia adieraztea:

a) Fiskalizatutako entitatearen Kontu Orokorrak fidelki islatzen duten alderdirik behinenetan entitatearen finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauari jarraituz prestatu den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak garaturiko jarduerari aplikatzekoa zaion legeriaren betetze maila.

c) Erakundearen egoera finantzarioa 2006ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenak biltzen ditu udalaren antolamendua, barne kontrola eta kudeaketa hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

### III.1. NORAINOKOA

Comptos Ganberak, Burlatako Udalaren –udalarena berarena eta haren erakunde autonomoena hartzen ditu– Kontu Orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze maila, ekitaldiko aurrekontuaren emaitza eta udalaren eta haren erakunde autonomoen diruzaintza-gerakina.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoera-orria.
- Entitatearen eta haren erakunde autonomoen galera eta irabazien kontua.
- Udalaren eta haren erakunde autonomoen kontu bateratuak.
- Oroitidazkia

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, udalean ezarritako ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak haxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion zenbait puntu aztertuz.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako fiskalizazio printzipioei eta araei jarraituz eta aurreko urteetako lanetan agerian utzi diren baldintzen eta arazoan arabera beharrezkotzat jo ditugun proba guztiak aplikatuz.

### III.2. MUGAK

Guk bidalitako gutunei aholku-emaile juridiko batzuek erantzun ez izanaren ondorioz, ezinezkoa zaigu izan zitezkeen gorabeherak egiaztatzea.

### IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, udalaren 2006ko ekitaldiko kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontuaren presetaketa eta edukia.

Gure azterketatik, honako iritzi hau ondorioztatzen da:

#### IV.1. BURLATAKO UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2006ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

- Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta gaurkotzeko dago.
- Sociedad Urbanística Municipal de Burlada, S.L.-ri dagozkion saldoak ez dira sartu egoera-orri bateratuan.

Arestian aipaturikoen ondorioak alde batera utzita, udalaren 2006ko ekitaldiko Kontu Orokorra fidelki islatzen du alderdirik behinenetan gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

#### IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren arabera, entitatearen jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun printzipioari jarraituz garatu da. Hala ere, ez dira bete hirigintza-hitzarmenak lurzorua-

ren udal ondarea erregistratzeari buruzko lege-zehaztapenak.

#### IV.3. 2006ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Hasierako aurrekontu bateratua 16,9 milioi eurokoa da, eta behin betikoa, 24,4 eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 71koa du, eta dirusarrerena, ehuneko 63koa.

2006ko ekitaldian gora egin du gastuen betetzearen ehunekoak, bai eta dirusarrerena ere. Azken horien artean, zuzeneko zergen betetzea ehuneko 101ekoa izan zen, eta zeharkakoena ehuneko 68koa; bi kapitulu horiek ekitaldiko dirusarreraren ehuneko 28 egiten dute. Baliabide bateratuen % 59 transferentzietatik datoz.

Ekitaldiaren amaieran aurrekontuaren emaitza doituari 1,4 milioi euroko defizita ageri da.

2006ko abenduaren 31n, zorra 6,1 milioi eurokoa zen, eta ekitaldi horretan zehar ez da mailegu berririk sinatu. Hala ere, esan behar da 2007ko ekitaldian 1,5 milioi euroko mailegu berri bat sinatu dela. Zorpetze-maila % 9,89koa da, eta muga, berriz, % 2,02koa; beraz, zorpetze-ahalmena nabarmen gainditu da. Diruzaintzako gerakin bateratua 65.000 eurokoa da, eta gastu orokorretarako 1,8 milioi defizita du. Egoera hori zuzendu beharko litzateke Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 230. artikuluan ezarritako neurrien bidez.

Finantzen ikuspegitik, udalak gaur egun zor bolumen handia agertzen du, eta oso zalantzazkoa da udalak zor horri aurre egiteko baliabideak sortzeko daukan gaitasuna.

#### IV.4. 2005eko TXOSTENAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Oro har, 2005eko ekitaldiari buruzko txosteneko administrazio- eta kontabilitate-izaerako gomendio nagusiak aintzat hartu direla esan daiteke.

### V. AZKEN ONDORIOA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genazake udalak modu egokian kudeatzen dituela bere aurrekontuak. Hala ere, haren finantza-egoerak aurrekontuen defizita eta zor, finantza-gastu eta gastu arrunteko bolumen handia du bereizgarri; horregatik, honela jokatu beharko du:

- *Finantza bideragarritasunari buruzko plan bat egin behar du hurrengo ekitaldietarako. Halaber, gastu arrunta kontrolatu eta udalean aplikatze-*

koa den zerga-presioa aztertu beharko ditu, eta zorpetze-muga gainditzea ekidin.

- Aurrekontuaren kudeaketaren barne kontroleko mekanismoak indartu eta osatu behar dira, egindako eragiketak ziurtatzeko eta bermatzeko; batez ere, saldoak berdinkatzeko eta berraztertze-ko arloari, kontabilitate printzipioei eta inbentarioak eguneratzeari dagokienez.

- Erakunde autonomoei dagokienez, horien estatutuak osatu eta gaurkotu egin behar dira, haien benetako autonomia-maila agertzeraz emanez eta udalak haien jardueraren gain erabiltzen dituen kontrol- eta zaintza-mekanismoak erakutsiz.

- Kultura Patronatua deszentralizaturiko udal zerbitzu bilakatzeko aztertu beharreko gai bat da,

kudeatzen dituen baliabideen ehuneko 85 baino gehiago udalaren beraren ekarpena baitira.

- Hirigintzaren kudeaketaren barne kontrola indartzea eta indarrean dagoen legerian ezarritako prozedurak betetzen direla ziurtatzea.

## VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### VI.1. ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA.

Atal hau bi zatitan banatuta dago: batetik, hornidura-erosketari eta zerbitzu-emateari buruzko alderdiak eta, bestetik, inbertsioak.

#### VI.1.1. Hornidurak erosi eta zerbitzuak ematea

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Errentamenduak	33.437,24
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	776.373,83
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	2.587.567,70
Zerbitzuaren ondoriozko kalteordainak	4.621,28
<b>Guztira</b>	<b>3.402.000,05</b>

Kontratazio espediente hauek aztertu ditugu:

- Hirigintzaren arloan aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko kontratua (26.180 euro).

- 2006-2007 denboraldiko helduentzako ikastaro sozio-kulturalen programak gauzatzeko laguntza teknikoa emateko kontratua (29.771 euro).

Comptos Ganberaren gomendioak betez, erosketen kudeaketarako prozedura normalizatua aplikatzen da.

Horretaz gain, epigrafeko gastuen azterketa egin da. Eginiko lanak erakusten du aplikatzekoa zaion araudia era arrazoizkoan betetzen dela. Hala ere, honako gomendio hau egin dugu:

- Kontratuei buruzko araudia aplikatzea eta lehiaketetako parte-hartzaileei jakinaraztea horien emaitzak.

#### VI.1.2. Inbertsioak

Hona hemen 2006ko ekitaldian aitorturiko betebeharren xehakapena, inbertsioen arabera:

Kontzeptua	2006an aitorturiko betebeharrak
Azpiegiturak eta erabilera publikoko ondasunak	741.673,99
Zerbitzuen funtzionamenduari loturiko inbertsioak	2.774.324,00
Inbertsio ez-materialak	14.926,01
<b>Guztira</b>	<b>3.530.924,00</b>

2006eko ekitaldian inbertsioen arloko esleipen garrantzitsuenak honakoak izan dira:

- Ermitaberri ikastetxe publikoko ataria estaltzea (216.008 euro).
- Ur beroko garbigailu bat erostea (199.984 euro).
- Kale-garbigailu xurgagailudun bat erostea (140.883 euro).
- Zangozako merindadea kalean aparkaleku bat egokitzea.
- Haur parkea hornitzea eta muntatzea (29.602 euro).

Esleipen-espeditente horiek azterturik, ez dugu administrazioko kontratuei buruzko araudiaren arau-hausterik detektatu. Hala ere, *gomendio* hau egiten dugu:

- *Lehiaketetako parte-hartzaileei jakinaraztea horien emaitzak.*

Horri buruz esan behar dugu ezen, Burlatako Udalari eginiko fiskalizazioetan zehar, hobekuntza antzeman dugula adjudikazio prozeduren gain, bai eta espeditenteak betetzean ere.

## VI.2. KUDEAKETARI BURUZKO BESTELAKO GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, gure aburuz udalak gauzatu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko.

Kasu batzuetan, gomendioak 2007ko ekitaldian betetzen ari dira.

### VI.2.1. Antolamendu orokorra

- *Barne araubideari buruzko erregelamendua egitea, horren bidez udaleko organo exekutiboan eskumenak definitu eta euren artean banatzeko eta erakunde autonomoekiko harremanak arautzeko, eta udalak eta udal patronatuek berenganatu behar dituzten gastuak eta dirusarrerak argitu eta zehaztea.*

- *Oinarrizko kudeaketa-prozedurak idatziz jartztea, eta exekuzio-faseetarako arduradunak identifikatu eta esleitzea.*

- *Udalak bere erakunde autonomoen ekintzen gain egin beharreko kontrol eta tutoretza behar bezala bermatzeko prozedurak taxutzea.*

### VI.2.2. Inbentarioa-ibilgetua

- *Udal ondasunen eskriturak egiten eta ondasunok erregistratzen amaitzea, hala jabari publiko-koak nola ondare-ondasunak eta komunalak.*

- *Udal inbentarioaren etengabeko gaurkotzea eta hura kontabilitatearekin konektatua egotea lortzeko prozedurak taxutu eta aplikatzea.*

- *Ibilgetuko dokumentazioa artxibatzeke eta altak nahiz bajak kontabilizatzeko prozedurak definitu eta ezartzea, kontu horiei aplikatzekoak diren kontabilitate-irizpideei jarraituz.*

- *Ibilgetua osatzen duten kontabilitate-saldoak aztertu eta garbitzea, udalaren ondasunak ongi isla ditzaten.*

### VI.2.3. Langileak

- *Plantilla langileriaren arloko beharri zehar egokitua ote dagoen jakiteko azterlan bat egitea, plantillaren arrazionaltasuna, lanpostu bakoitzeko lan-zama eta kasu bakoitzeko ordainsari-mailak eta gastu sozialak aztertzea.*

- *Langileen absentismoari buruzko zenbakizko informazioa prestatzea.*

- *Plantilla organikoko lanpostu hutsak betetzea eta behin-behineko administrazio kontratuak saihestea; izan ere, halako kontratuen kopurua bereziki nabarmena da udal honetan.*

### VI.2.4. Tributu bidezko dirusarrerak, tasak eta prezio publikoak

- *Prozedurak taxutu eta sistematikoki aplikatzea dirusarreraren kudeaketako datuak egiaztatu ahal izateko, eta datu horiek beren kontabilitate-erregistroekin eta diru-bilketakoekin bat etorrarazi eta alderatzea, horrela kontabilitate- eta aurrekontu-informazioaren segurtasun eta fidagarritasun handiagoa lortzeko.*

- *Tasa eta prezio publikoekin ordaintzen diren kostuei buruzko azterketak aldizka egitea.*

### VI.2.5. Alderdi orokorrak

- *Gastuak eta dirusarrerak epigrafe egokien barrenean kontabilizatzeko, eta sortzapenaren printzipioa behar bezala aplikatzea.*

- *Gastuak eta dirusarrerak beren izaera ekonomikoaren arabera egotzi behar zaizkio aurrekontuari.*

- *Legeriak ezarritako betekizun guztiak bete-  
tzea aurrekontuak aldatzeko espeditentei eta aurrekontuak onesterakoan epeak betetzeari dagokienez.*

### VI.3. HIRIGINTZA

2003ko martxoaren 28an hartu zuen indarra Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege berriak, abenduaren 20koak, zeinaren bidez ordeztzen baita uztailearen 4ko 10/1994 Foru Legea. Udalak, 2006ko ekainaren 1eko Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bitartez, udal plana onesteko izapideak hasi zituen. Erabakia 2006ko uztailearen 6ko 80. NAO n eman zen argitara, eta Nafarroako Gobernuari bidali zitzaion, hark onetsi zezan. Txosten hau egin zenean, Nafarroako Gobernuak ez zuen onetsi udal plan berria.

Horrenbestez, udal plan zaharra oraindik indarrean da.

Hirigintza arloko proiektu desberdinetan indarrean dagoen araudia betetzen da etxebizitza babestuek eraikitzeari eta luraren ehuneko hamar udala ondareerako lagatzeari dagokienez.

Bestalde, eginiko azterketaren arabera, hauxe gomendatzen dugu:

- *Antolamenduzko egitura bat ezartzea, non arduradunak izendatzen diren eta kideen ardurak eta eskumenak idatziz zehazten baitira, eta hirigintza-kudeaketarako prozedurak ezartzea.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistro bat egitea eta indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatzea: hitzarmenak justifikatzeko oroitidazkia, txosten teknikoak eta juridikoak eta abar.*

- *Lurraren udal ondarearen erregistroa eta kontrola ezartzea.*

### VI.4. SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL DE BURLADA, S.L.

2005eko irailaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Burlatako Udalak sozietate publiko bat eratze-ko administrazio-espeditatea onetsi zuen; sozietate horren helburua da udalaren jardueran ahalik eta eraginkortasun handiena lortzea zaharberri-

tzea sustatzeko, etxebizitzak eta bestelako eraikinak sustatzeko, lurzorua urbanizatzeko, hirigune degradatuak suspertzeko eta, ondorioz, orube eraikigarrien eta eginen diren eraikinen prezioak –salmentakoak nahiz alokairukoak– jaisteko.

Kapital soziala 1,8 milioi eurokoa da, 180 partaidetzatan banatua; partaidetza bakoitzaren balio nominala 10.000 eurokoa da, eta diru hori guztia Burlatako Udalak ordaindu du zenbateko horretan baloratutako lursail bat emanez. 2006ko ekainaren 8ko eratze-eskritura bat zuzentzen zuen beste eskritura baten arabera, emandako lursailaren balioak 2.464.557 euro egiten du, 1.800.000 euroko kapital soziala ezarri zen, bai eta 664.556,94 euroko jaulkitzeagatik saria ere, 2006ko abenduaren 31n sozietatearen kontabilitatean erregistratu gabe dagoena.

2006ko ekitaldian, sozietate berri honek bi kreditu-poliza sinatu ditu; 1,8 milioi euro egiten dute, guztira. Horietatik, 2006ko abenduaren 31n 0,2 milioi euro erabili dira. Sozietatearen emaitza, 2006ko ekitaldian, 0,2 milioi euroko galerara iritsi da, Ripagainako udalez gaindiko plan sektorialaren ondoriozko hirigintzako kuoten eraginez, nagusiki.

Gaur egun indarrean dagoen araudian ezartzen denez, udalaren egoera bateratuak haren erakunde autonomoen eta merkataritza-sozietateen aurrekontu eta aurreikuspeneko finantza-egoera guztiak jaso behar ditu, toki entitatea bada haien kapital sozialaren titular bakarra. Horrenbestez, Burlatako Udalaren hirigintza sozietatearen egoerari buruzko balantzea udalaren eta haren erakunde autonomoen egoerari buruzko balantzeari erantsi beharko litzaioke.

Francisco Javier Sesma Masa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde